



Hizkuntza eskola ofizialak hizkuntzen irakaskuntzako C maila ematea eta egiaztatzea eskatzen dugu

2007-2008 ikasturtera arte Hizkuntza Eskola Ofizialek irakaskuntza 5 ikasmaitan eskaini dute beren ikasle ofizialentzat. 3. maila gaindituta Oinarrizko Zikloko Agiria eskuratzen zen eta 5. maila gaindituta Goi Zikloko edo Gaitasun Agiria. Ikasle libreek ere aukera zuten bi egiaztagiri horiek eskuratzeko eta Goi Ziklokoa goren mailako egiaztagiria zen Espainiako estatu osoan, hizkuntzei dagokienez.

Europar Batasunako kide diren herrialde desberdinetako hizkuntza ikastetxe publikoek eskaintzen duten irakaskuntza berdintze aldera eta beren tituluak homologazioa errazteko hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratua (EEMB) sortu da. Bertan trebetasunen araberako ahalmenak eta gaitasunak deskribatu -idatzizko eta ahozko adierazpena, irakurriaren eta ahozkoaren ulermena eta komunikatzeko gaitasuna orokorrean- eta sei maila ezartzen dira: A1, A2 (oinarrizko erabiltzailea), B1, B2 (erabiltzaile burujabea) C1 eta C2 (erabiltzaile aurreratua).

Hezkuntzaren Lege Organikoak hiru mailatan antolatu zituen hizkuntza eskola ofizialen ikasketak (HHEEOO): oinarrizkoa, tartekoa eta aurreratua, eta HHEEOOak goi mailak eskaintzeko zentro ofizialak direla adierazi: tartekoa eta aurreratua, hain zuzen. Hezkuntzaren Lege Organikoak zioen gure ikastetxeetan eskaini beharreko hizkuntzen ikasketek Europako Kontseiluak Europako Erreferentzi Marko Bateratua izeneko dokumentuan adierazi zituen gomendioak jarraitu behar zituztela.

Tamalez, ikastetxe askok gure zentroetan C maila ere eskaini zedin borrokatu arren, Hezkuntza Ministerioak Hezkuntzaren Lege Organikoa garatzeko Errege Dekretu bat argitaratu zuen, estatuko hizkuntza eskola ofizialen interesetarako kaltegarri izan dena. 1629/2006 ED honek eskolak soilik B2 maila arte eskaintzen ahal dutela ezarri zuen. Hau izanen da heldu den ikasturtetik aitzina maila aurreratuaren bigarren kurtsoan egiaztatuko dugun ezagutza maila.

Honek guztiak larrigarri bat du. Orain arte azken kurtsoa bukatzean ikasleak "Gaitasun Agiria" eskuratzen bazuen -hizkuntza-gaitasun maila altuena, EEMBN C2 izanen zena (erabiltzaile aurreratua)-, erreformarekin azkeneko kurtsoak B2a bakarri egiaztatzen du (aurreratua) (erabiltzaile burujabea) Garrantzitsua da oso gauzei beren egiazko izena ematea. **Markoaren B2a tarteko-altua edo tarteko-goi mailakoa da, baina ez**



aurreratua, Europako Erreferentzi Marko Bateratua edo ALTEren (Hizkuntzak Ebaluatzeko Profesionalen Europar Elkarte) ziurtagirien zerrenda irakurrita edozeinek ikusten ahal duen gisan. British Councilak Cambridge First Certificatearekin parekatzen du. Cervantes Institutuak espainieraren erreferentzia mailen curriculum-planean hurrengo hau dio: "Lehenbiziko liburukiak A1 eta A2 mailak hartzen ditu (oinarrizko edo hastapen etapa); bigarrenen B1 eta B2 mailak daude (TARTEKO etapa edo hizkuntzaren erabilera independentea); eta hirugarrenak C1 eta C2 mailak hartzen ditu (etapa. AURRERATUA-goi mailakoa edo hizkuntzaren erabilera gaitua)". Europako Kontseiluak B2-Vantage maila sakonki definitzen du maila ertain, goi-maila gisa (upper-intermediate).

B2 maila HHEEOOk estatu osoan ematen ahalko duten ikasketa ziurtagiri gorena da. C maila lortu nahi eta ordaintzen ahal duen herritarrak unibertsitateetara edo erakunde pribatuetara jo beharko du, zeinek egiaztatzen ahal den oro egiaztatu eta kobratzen baitute.

Hizkuntza eskolek C1 eta C2 mailako espezializazio eta hobekuntza ikastaroak eskaintzen ahal ditugu, baina ikastaro eta ziurtagiri hauek balio autonomikoa dute soilik eta ez dira komunak estatu guztian. Hezkuntza ministerioa inhibititu egiten da, ez du maila hau curriculumaren aldetik garatzen eta Erkidego bakoitzak bere kabuz interpretatzen du eta ondorioz, Erkidego bakoitzak ematen ahal dituen ziurtagiriek ez dute baliorik izanen Estatu guztian.

Hezkuntzaren Lege Organikoa garatzen duen 1629/2006 Errege Dekretua argitara eman baino lehen esan genuen honek guztiak ez zuela inolako zentzurik, gure ikasleek eskubidea baitute gure ikastetxeetan gero eta handiagoa den hizkuntzen ezagutza maila egiaztatu ahal izateko, gure gizartea Europara eta mundura gehiago irekitzearen ondorioa baita.

Hizkuntza Eskola Ofizialek eskaintzen dituzten tituluen balio-gutxitzeak Madrileko Erkidegoko HHEEOOk irakasleen kidegorako oposizioetan eragina izan du dagoeneko. Bertan HHEEOOk titulazioei puntu erdia ematen zaie, eta bi puntu titulazioak Goethe Institutukoak, British Councilkoak, Alliance Françaisekoak edo DELF/DALekoak badira. Atzerriko erakundeek emandako titulazio pribatuak gehiago baloratzen dira erakunde publiko ofizialek emandakoak baino. Horrela Hezkuntzaren Lege Organikoaren izpiritua urratzen da, aitzin solasean horrela baitio: "*aukera berdintasuna gizarte kohesioaren berme gisa, bizitza guztian zehar ikaskuntza sustatzeko beharra, hezkuntza sistemaren homogeneotasuna eta batasuna*". CCOOk dagoeneko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du honen inguruan.

Ondoren azaltzen den koadroak gure egoera (Nafarroa) erakusten du "maila aurreratu" faltsua Espainiako HHEEOOetan onartu eta ezartzen denean:

EUROPAKO ERREFERENTZI MARKO BATERATUAREN MAILAK (EEMB)		1629/2006 EDaren ARABERA HHEEOOetan EMATEN DIREN IKASKETAK
C2		ETA ORAIN ZER?
C1		
B2	B 2.2	2. MAILA AURRERATUA
	B 2.1	1. MAILA AURRERATUA
B1		TARTEKO MAILA
A2		2.OINARRIZKO MAILA
A1		1.OINARRIZKO MAILA

HHEEOOek EEMBk definitzen duen hizkuntza-gaitasunaren maila gorena, C maila, akademikoki eta ofizialki eskaini eta egiaztatu ahal izatea eskatzen dugu, hurrengo argudio hauei jarraikiz:

1.- Gaur arte irakaskuntza eskaini eta Gaitasun Agiria eman izan dugu (5. maila gainditzean) hizkuntza gehienetan C ezagutza maila batean; euskaran C bat zen eta da, nabarmen, frantsesean, ingelesean eta italieran den ber.

2.- HHEEOOetako profesionalek, unibertsitateko A mailako lizentziatuok, C maila hau erakusteko eta egiaztatzeko prestakuntza filologiko eta linguistiko egokia dugu.

3.- Hizkuntza Eskola Ofizialek helduendako araubide bereziko irakaskuntzak eskaintzen dituzte; hori dela eta, ikasketa hauek ezin dira ikastetxe hauetatik kanpo eskaini eta egiaztatu. Gizarteak ikastetxe ofizial batek titulazio goren hau gizartearendako eskuragarria den prezioa batean eskaintzea behar du, ez baitago maila honetako bestelako titulu akademiko ofizialik.

4.- 1629/2006 Errege Dekretuak Gaitasun eta Goi Mailako Agiri zaharren eta EEMBren B2 mailaren arteko baliokidetasuna ezartzen du. Baliokidetasun horrek modu larrian eta atzera eraginez kaltetzen ditu Ministerioak berak edota Erkidego Autonomoek, HHEEOOek proposaturik, luzatzen dituzten agiri horien titularrak.

5.- Atzerriko nahiz erkidegoetako hizkuntzak murgiltze edo elebidun planteamenduekin oinarrizko derrigorrezko irakaskuntzetan progresiboki sartzeak, curriculum-edukiak hizkuntza horietan eskaintzeko gai diren irakasle prestuen beharra ekarri du. EEMBren arabera irakasle hauen

hizkuntza-gaitasunaren mailak C1ekoa izan behar du, gutxienez. Maila hauek egiaztatzen ahal dituzten zentro ofizialak HHEEOOak izan behar dira.

6.-HHEEOOak hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan espezializatutako ikastetxeak gara, hizkuntzen irakaskuntzan eta egiaztatzean frogaturiko esperientzia handiena duten hezkuntza erakundeak gara. Estatua osoan 250 baino gehiago gara eta 375.000 ikasle ofizial baino gehiagok ikasten dute bertan. 22 hizkuntza baino gehiago eskaintzen dira gure eskoletan. Eskola hauetako zaharrena 1911. urtean sortu zen, Madrileko "Jesús Maestro" 1. Hizkuntza Eskola Ofiziala.

Horrengatik guztiarengatik, Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko hezkuntza-komunitateak hurrengo hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari:

1.- 88/2007 Foru Aginduaren 22. artikulua aldatu dezala, tarteko maila bi kurtsotan egituratuko dela adieraziz.

2.- Hezkuntza Ministerioari eskatu diezaion bidezkoak diren lege aldaketak egin ditzala Espainiako HHEEOO guztiek EEMBren C mailak baliotasun berberarekin eskaini eta egiaztatu ahal ditzaten ahalbidetuz.

3.- Estatuaren araudia aldatzen ez den bitartean Nafarroako HHEEOOak baimendu ditzala C1 eta C2 mailetako espezializazio eta hobekuntza ikastaroak eskaini eta egiaztatzeko, 1629/2006 EDaren bigarren xedapen gehigarriarekin bat.

Iruñean, 2008ko apirilaren 21ean

Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko eskola kontseiluko ikasleak, administrazio eta zerbitzuetako langileak, irakasleak eta zuzendaritza taldea.

